



Zegaman, 2020ko ekainaren 5ean

## **ZEGAMAÑO UDALEKU IREKIAK 2020 HEZITZAILEAK HAUTATZEKO DEIALDIA**

2020ko uztailaren 6tik uztailaren 30era udaleku irekiak antolatu ditu Zegamako Udalak 2009 eta 2016 urte bitartean jaiotako haurrentzat. Honela, udaleku hauetan hezitzaile gisa aritzeko deialdia luzatzen dizuegu.

Hezitzaileen kontratazioa ekainaren 29tik uztailaren 30era bitartekoa izango da, beti ere unean uneko Osasun Ministeritzaren gomendioak jarraituko dira. Hezitzaileak hautatzeko garaian, hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko irizpideak** honakoak izango dira:

- 1) 18 urtetik gorakoak izatea edo 2020 urtean betetzea.
- 2) Zegaman erroldatua egotea.
- 3) Langabezian egotea (ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- 4) EGA edo HABE-ren 3.maila izatea. Eduki ezean, euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea baloratuko da.
- 5) Adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria.

Aurretik aipatuako baldintzak betetzen dituztenen artean, aukeraketa, lehenetsun hauen arabera egingo da:

### **A TALDEA**

Eusko Jaurlaritzak homologatutako aisialdiko zuzendari titulua edo begirale titulua izatea eta Zegaman, aurreko urteetan, noizbait lan honetan aritu ez direnak.

Talde honetako baldintzekin behar diren hautagai kopurua beteko ez balitz, hurrengo taldekoak hartuko lirateke, hurrenez hurren.

### **B TALDEA**

Eusko Jaurlaritzak homologatutako aisialdiko zuzendari titulua edo begirale titulua izatea eta Zegaman, aurreko urteetan, lan honetan aritu direnak.

### **D TALDEA**

Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea edo ikasketa hauek burutzen aritzea; magisteritza, pedagogia, psikologia, gizarte hezkuntza edo haur hezkuntzako goi teknikaria eta Zegaman, aurreko urteetan, noizbait lan honetan aritu ez direnak.

### **E TALDEA**

Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea edo ikasketa hauek burutzen aritzea (goian aipatutakoak) eta Zegaman, aurreko urteetan, lan honetan aritu direnak.

### **F TALDEA**

Aurretik aipatutako Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak ez izatea eta Zegaman, aurreko urteetan, noizbait lan honetan aritu ez direnak.



## **G TALDEA**

Aurretik aipatutako Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak ez izatea eta Zegaman, aurreko urteetan, lan honetan aritu direnak.

**Oharra:** hala balegokio, talde bakoitzeko aukeraketa, zozketa bidez egingo da.

➤ Hezitzaileen **izen-ematea:**

**Epea: 2020ko ekainak 9tik 12ra (biak barne).**

Izen-ematea: Zegamako Udal Liburutegian goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 18:30etatik 20:30etara.

Aurkeztu beharrekoak: curriculum-a, titulu eta agirien kopia, langabezian egotearen ziurtagiria (Lanbide), adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria, NAN-aren kopia, osasun txartelaren kopia.

Aukeratuak izan diren hautagaien zerrenda **ekainak 17**, asteazkena, publikatuko da Udaletxean eguerdiko 14:00etarako. **Zozketa, behar balitzateke, ekainak 18an 19:00etan** egingo da Udaletxean eta **edonork etorri ahal izango du.**

## **ZEGAMA. TIEMPO LIBRE 2020 CONVOCATORIA PARA LA SELECCIÓN DE EDUCADORES**

Para la selección de educadores serán imprescindibles los siguientes criterios:

- 1) Tener 18 años o cumplir en el año 2020.
- 2) Estar empadronado en Zegama.
- 3) Estar en desempleo (se requiere el certificado de desempleo).
- 4) Poseer el título de EGA o el 3. nivel de HABE. En caso de no poseer dichos títulos, se valorará un nivel alto de conocimiento y manejo del euskera.
- 5) Certificado de delitos de naturaleza sexual para trabajar con menores.

Para más información, los/las interesados/as deberán acudir a la Biblioteca.

Besterik gabe, adeitasunez

ALKATEA

Joseba Izagirre Arozena